



AZTERKETA BULEGOKO BULETINA
ENPLEGUARI BURUZKO APARTEKOA

45. ZENBAKIA

2016KO URTARRILAREN 19

Lanaren eta prekarietatearen egoera

Langabeziagatiko prestazioak

Europarekiko eta gizon-emakumeen arteko alderaketa

Gutxiengo soldata

Sarrera

Langabezia murrizten omen zuen enpleguaren sorrera iragarri eta ziurtatzen zuten hainbat diskurtso oker eman eta gero, langabezia murriztu izan baitzen langabeek, etsiturik, lana bilatzeari uzten ziotelako, 2015eko hirugarren hiruhilekoan enplegua sortzen hasi da Hego Euskal Herrian.

Hala eta guztiz ere, lanaren hazkunde hau ia ez da susperraldi sozioekonomiko baten baitan ematen ari, sorturiko enplegu berriak ia erabat prekarioak baitira eta, oraindik ere, pertsona ugari baitaude lan egin nahian eta ezinean; horietako hamarretik sei baino gehiagok gutxienez urtebete darama lan bila ezin lortuz. Gainera, langabezia egoeran dauden ia hamarretik seik ez du inolako prestaziorik jasotzen bere langabe egoeratik.

Horretaz gain, emakumeen aurkako diskriminazio altu bat ematen da lan munduan, emakumeek gizarte eta ekonomiari egiten dioten ezinbesteko ekarpena prekario bilakatuz eta gutxietsiz. Egungo egoera larri pairatzen dute gazteek eta 55 urtetik gorakoek ere, gainontzekoek baino langabezia eta prekarietate maila altuagoak baitituzte.

Honekin guztiarekin batera, nabarmentzea besterik ez dago Estatu espainiarreko Gobernuak ezarri duen Lanbide-arteke Gutxieneko Soldata berria hain dela baxua ezen eragozten baitie jasotzen duten pertsonen jada dauden pobrezia egoeratik ihes egiten. Gaur egun mundu mailan doikuntza programak inposatzen dabiltzan korrante politiko eta ekonomiko neoliberalak aplikatzen duten justiziaren adierazgarria dugu hori.

Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetako populazioa eta lan egoera

Hego Euskal Herria, Nafarroak eta Euskal Autonomi Erkidegoak osatutako herrialdea, 2.765.800 pertsona dituen lurraldea da 2015eko hirugarren hiruhileko datuen arabera (horietatik 1.414.900 emakumeak dira –%51,16– eta gainontzeko 1.350.900ak gizonak), INEk egindako Populazio Aktiboaren Inkestak dioenez.

Populazio horretatik, lan merkatua –populazio aktiboa delakoa, hots, lana dutenak eta lana bilatzen dutenak– 1.324.700ek osatzen dute (lan egiteko adinean daudenen %74,9): 709.600 gizon (%53,4) eta 614.900 emakume. Horietatik 309.200 nafarrak dira eta 1.015.500, EAEkoak.


HEHn dagoen biztanleria inaktiboa milioi batetik gora pertsona da –diru-trukean lanik egiten ez dutenak

edota gogotsu lanik bilatzen ez dabilzanak gaur egun– eta horietatik %55,2 65 urtetik gorako pertsonak dira. Inaktibo daudenetik ikasleak, ezintasun iraunkorra dutenak, jubilatutak eta jubilazioa ez den beste pentsio bat jasotzen dutenak kendu ezker, %93,9 (253.100 pertsona) “etxeko lan eta jarduerengatik” ez da biztanleria aktiboan sartzen, EPAREN arabera. Egoera honetan dauden pertsonak emakumeak dira %88an (222.800).

Oraindik ere, 2015ean, lanik egin ez eta bilatzen ez dutenen laurdena etxeko lan eta jardueren eraginez dago egoera horretan; eta horietako 10etik 9 emakumeak dira. Aipatzekoa da gai honetan azken urteetan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak murrizten ari direla.

Biztanleria aktibo diren HEHko 1.324.700 pertsonetatik 1.142.900ek lana dute eta 181.600ek ez, langabezia tasa %13,7an kokatuz.

HEGO EUSKAL HERRIKO POPULAZIOA
2015eko hirugarren hiruhilekoan



Iturria: INE

(Lan egiteko adinean 16 eta 65 urte arteko biztanleak kontuan hartuta)

Lan eta prekarietate egoera adin, sexu eta sektorearen arabera: langabezia tasa eta joera

2015eko hirugarren hiruhilekoan %13,7ko langabezia maila dago HEHn, eta behera egin du puntu eta erdi aurreko hiruhilabeteko datuarekiko eta urtebete lehenagokoarekiko (bi kasutan langabezia %15,2koa baitzen).

Aurreko hiruhilekoarekiko, Hego Euskal Herrian 21.200 langabe gutxiago daude, baina kontrako joera eman da bi lurraldeetan: Nafarroan 3.500 biztanle gehiago daude langabezian eta EAEn 24.700 gutxiago. Urtebete lehenagoko datuekin alderatuz gero, 19.600 langabe gutxiago daude (4.300 gutxiago Nafarroan eta 15.300 EAEn).

Azpimarratzekoa da bi taldek duten egoera makalagoa: gazteenak (16 eta 24 urte bitartekoak) eta 55 urtetik gorakoak. Gazteen artean langabezia maila oso altua da $-39,2-$ baina behera egin du (urtebetean 2.300 gutxiago) Nafarroan eman den jaitsieragatik (nahiz eta 1.100 gehiago egon azken hiruhilekoan, 2.700 gutxiago daude urteartekoan); aldiz, EAEn apalki egin du gora (azken urtean 400 gazte gehiago daude langabe, baina aurreko hiruhilekoan baino 400 gutxiago). 55 urtetik gorakoak artean langabe gehiago dago (urtebete lehenago baino 700 gehiago) EAeko joeraren eraginez.

Horiekin, jada badira 55 urtetik gorako 18.000 lagun langabezia egoeran daudenak (10.100 emakumeak direlarik, %56,1). Langabezian dauden gazteak 26.500 dira (16.000 gizonezkoak, %60,4). Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun hau lanean, prekarietatean eta langabezian ematen den ezberdintasunetako bat besterik ez da.

Ehunekoari so eginez gero, gazteen langabezia aipaturiko %39,2an kokatzen da HEHn, ekaineko datuen gainetik (%38,8 baitzen orduan), baina urtebete lehenagokoen azpitik (%43 izan baitzen). 55 urtetik gorakoak kasuan, berriz, ezin da ehunekorik kalkulatu EPAk ez baititu beharrezkoak diren datuak biltzen bere inkestan.

Sexuaren arabera, langabezian dauden emakumeen kopuruak $-87.000-$ behera egin du urtebete lehenago zeuden 93.600etatik: emakumeen langabezia tasa %14,1ean kokatzen da. Gizon langabeen kopurua neurri handiagoan murriztu da, 2014ko irailean zeuden 107.600etatik urtebetean 94.700era pasa baita; ondorioz, gizonen langabezia tasa %13,3koa da.

Langabezia utzi eta lana aurkitzeko denbora dela eta, 103.100 lagunek urtebete baino gehiago daramate langabezian ezin lanik egin $-langabezian daudenen %56,8-$ eta hobekuntza bat eman bada ere alor honetan $-aurreko hiruhilekoan epe luzeko langabezia langabeen %62,8koa zen eta aurreko urtean %64,1ekoa-$, datua larria da oso oraindik, langabeen erdiak baino gehiagok urtebetean ez baitute lanik aurkitu.

Ikasketei dagokienez, Hego Euskal Herrian langabe daudenen %58k bigarren hezkuntzako ikasketak ditu, %35ek goi mailakoak eta soilik %6k lehen hezkuntzakoak. Bigarren hezkuntza duten langabeen erdiak baino gehiagok –%56k– bigarren hezkuntzako lehen zikloa bete dute, %21ek bigarrena eta %23k lanbide heziketa.

Enpleguaren, behin-behineko lanaren eta lanaldi murriztaren joera

Lana duten pertsonak, irailaren bukaeran, 1.142.900 izan dira hegoaldeko lau lurralde historikoetan: 267.200 Nafarroan eta 875.700 EAEn. Iaztik bi erkidegoetan sortu da enplegua: 3.900 lehenengoan eta 11.400 bigarrenengan. Gazteen artean ere lana sortu da, 41.200 gazte lanean baitaude: iaz baino 3.000 gehiago daude –%7,9 gehiago– EAeko joerari esker, Nafarroan 100 gutxiago daudelarik.

Sorturiko enplegua, aitzitik, gero eta prekarioagoa da, behin-behinekotasunak eta partzialitateak erakusten dutenez. Horrela, lanaldi murriztean lan egiten dutenen langileak %16,8 dira jada, hazkunde apala jazo delarik (iaz %16,7). Lanaldiaren prekarizazioaren igoera gizonengan ari da ematen –%6,9 dira, urtebete lehenago %5,8 zirelarik– emakumeena beherantz doan bitartean –egun %28,2koa da, iaz %29,4koa zelarik–, hauek altuegia den partzialitatea jasaten badute oraindik ere.

Lana dutenen artean, soldatapekoak 957.500 dira, ekainetik irailera 13.600 langiletan hazi delarik (iaztik beste 6.000 lagun gehiago daude soldatapean lanean). Hazkunde hau antzera eman da bai lurraldeka, baita gizon-emakumeen artean ere.

Soldatapeko lana duten gazteen kopuruak gora egin du (3.700ean urtebetean) EAeko eboluzioaren eraginez (3.600 bertakoak dira), Nafarroan soilik 100ean hazi baita. Gainera, sexuaren arabera eman den ezberdintasuna argia da: soldatapeko gizonen kopurua 5.200ean gehitu da urtebetean, emakumeena 1.600ean handitu den bitartean.

Kontratuen epe-mugari dagokionez, iraila bukaeran zegoen tenporalitatea %25,1ekoa zen Hego Euskal Herrian: Nafarroan %28koa eta EAEn %24,3koa. Aurreko urtearekin erkatuz, igoera garrantzitsua eman da (orduan %22,9koa zen: %24,3 Nafarroan eta %22,4 EAEn). Sexu aldetik, emakumeek behin-behinekotasun gehiago pairatzen dute (%27,9 HEHn: %31,2 Nafarroan eta %26,9 EAEn) gizonek baino (%22,6, %25 eta %21,9, hurrenez hurren).

Deigarria da oso lan-kontratua egiten duen sektorea publikoa edo pribatua den aztertzean ikuskatu

daitekeena behin-behinekotasunari dagokionez (HEHan sektore pribatuak %23,8ko tenporalitatea du eta publikoak, %30,7koa): Nafarroan, sektore biek dute %28ko behin-behinekotasun tasa; EAEn, aldiz, sektore publikoan tenporalitatea %31,4 da eta pribatuan, %22,6. Beraz, EAEn alor publiko osoak pribatuak baino %39 behin-behineko kontratua duten langile gehiago du.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA SEXU, SEKTORE ETA LURRALDEKA HEHN 2015EKO 3. HIRUHILEKOAN

	Nafarroa	EAE	HEH
Sektore publikoa	%28	%31,4	%30,7
Sektore pribatua	%28	%22,6	%23,8
Gizonak	%25	%21,9	%22,6
Emakumeak	%31,2	%26,9	%27,9
Guztira	%28	%24,3	%25,1

Iturria: INE

Gainera, esan beharra dago sektore pribatuan gizon eta emakumeen kontratuen epe-mugak antzekoagoak direla: HEHko enpresa pribatuetan gizonen behin-behinekotasuna %22,8koa da eta emakumeena %25,1koa (kasu bietan Nafarroan EAEn baino zertxobait altuagoa). Aitzitik, HEHko sektore pribatuan lanean dauden soldatapeko emakumeen %36,2 tenporalak dira, gizonen kasuan %21,5 diren bitartean (kasu hauetan, berriz, altuagoa da behin-behinekotasuna EAEn). Gainera, emakumeek diskriminazio handiagoa pairatzen dute Nafarroako sektore publikoan (kontratu tenporala duten gizonak %16,7 dira; emakumeenak %35,6). Hala eta guztiz ere, EAeko sektore publikoan dagoen ezberdintasun maila ere oso altua da, gizonen tenporalitatea %23koa delako emakumeen %36,3aren parean.

Laburpen gisa, nabarmendu beharrekoa:

- Langabezia murriztu zen 2015eko hirugarren hiruhilekoan enplegua sortu zelako, aurreko hilabeteetan ez bezala: orduan langabeek lana bilatzeari utzi ziotelako jaisten baitzen langabezia.
- Langabezia maila jaisten ari da, oraindik %13,7ko langabezia tasa badugu ere.
- Langabezia orokorra, gazteena eta epe luzekoa murrizten dabilta, baina 55 urtetik gorakoena igotzen ari da.
- Soldatapeko langileen kopurua hazten ari da, baita behin-behinekotasun tasa ere.
- Lanik egin gabe lan bila ez dabiltzanen laurdena etxeko jarduerak eta lanak egiteagatik dago horrela, ia denak emakumeak izanik.

Egindako kontratuak, erregistraturiko langabezia eta prestazioak

2015. urtean zehar, Enplegu Zerbitzu Publikoak argitaratu duenaren arabera, 1.206.253 lan kontratu egin dira Hego Euskal Herrian (2014an egindakoak baino %14,5 gehiago), horietatik 338.998 Nafarroakoak eta 867.255 EAEkoak direlarik. Kontratu gehienak –%93,6– aldi-baterakoak izan dira (Nafarroan %95,1 eta EAEn %93,1); beraz, behin-behineko 1.129.447 kontratu egin dira 2015ean HEHn eta soilik 76.776 izan dira mugagabeak.


Honekin guztiarekin, 2015 urte amaieran 193.160 pertsona langabezian izen emanda zeuden HEHn, urtebete lehenago baino 20.397 gutxiago (erregistraturiko langabezia %9,5ean jaitsi da). Hirugarren urtez jarraian murriztu da erregistraturiko langabezia, 2007-2012 artean egondako hazkunde garaia ostean. Are gehiago, azken urtekoa izan da hirurotatik murrizketa garrantzitsuena, 2013an %1 eta 2014an %2,4koak izan baitziren jaitsierak.

Hala eta guztiz ere, langabeziaren gutxitze hau ez da langabe jarraitzen duten pertsonen bizi baldintzen hobekuntzaren baitan eman, gero eta langabe gehiagok ez baitu inolako prestaziorik jasotzen eta, gainera, langabe bakoitzeko prestazioa murrizten baitoa: 2015eko azaroan langabeen %59k ez du prestaziorik jaso HEHn, eta langabe bakoitzeko prestazioa 425 eurora murriztu da jada.

Informazio hau hurrengo grafikoan dago islaturik

- Alde batetik, zutabeek langabezia egoeran dauden pertsonen zein zatik kobratzen duen prestazio bat edo beste, edo ez duen kobratzen adierazten dute (2015eko azaroan, adibidez, %59k ez du ezer jaso, %22k kontribuzio-mailako prestazioak jaso ditu eta %19k bestelako prestazioak).
- Bestetik, langabe bakoitzeko batez besteko prestazio ekonomikoa marraren bidez eta zenbaki absolututan dago adierazita (424,93 euro 2015eko azaroan).

LANGABEKO GASTUA PRESTAZIOETAN ETA LANGABEEN BABES MAILA AZAROAN



Iturria: Sepe

Grafikoan ikus daitekeenez, 2005 eta 2015 arteko azaroko hilabeteetan langabe bakoitzeko prestazioetan egindako gastuak hazkunde epe bat izan zuen, goia jo 2009an eta aurrerantzean murrizketa; horrela, langabe bakoitzeko gastuak gogor egin zuen gora 2005 eta 2009 artean, 583,04 eurotik 841,71 eurora igo baitzen (guztira %44,4ko hazkundea), ondoren gaur egun dauden 424,93 eurora murriztu arte (2009an zegoen kopuruaren erdia suposatzen duelarik).

Horren kontrako joera izan du langabezian egonda inolako prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen ehunekoak: 2005 eta 2009 artean murriztu egin zen, %32,4ko minimoa markatuz 2009an, ostean era garrantzitsuan handituz. 2015eko datuen arabera, kontribuzio-mailako prestazioa jasotzen duten langabeen kopuruak behera egin du (%22,4ra iritsi arte) sorospen-mailako prestazioa jasotzen duten langabeen kopurura hurbildu arte (%18,7). Aurreko urteetan kontribuzio-mailako prestazioa jasotzen zutenak sorospen-mailakoen bikoitza baino gehiago izan badira ere. Epe luzeko langabeziaren igoera eta ongizate-estatuaren desagiteak sorturiko babes falta izan dira honen eragile nagusiak.

Adibide gisa, 2011ko azaroko 2015ekoarekin konparatzean, orduan 3.000 langabe gutxiago zeuden orain baino Hego Euskal Herrian (guztira 190.813 zeuden 2011an) baina prestazioetara bideratu zen gastua

47,3 milioi euro altuagoa izan zen (guztira 129,6 milioi euro bideratu baitziren hartan).

Gainera, 2011ko azaroan langabeen %58,3k prestazioak jasotzen zituen bere langabe egoeragatik, 2015ean ehuneko hori %41ekoa izan delarik. Murrizketa hau kontribuzio-mailako prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren jaitsieraren eraginez eman da batik bat (%35,8tik %22,4ra gutxituz), sorospen-mailako prestazioak jasotzen dutenen kopurua era apalagoan murriztu baita (%22,5etik %18,7ra).

Hurrengo taulan prestazioen hartzaile bakoitzeko kopurua aztertzen da (Sepek Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak barneratzen ditu), eta bertan ikusi daitekeenez 2015eko azaroan Hego Euskal Herrian prestazioen hartzaile bakoitzak 1.035,35 euro jaso ditu batez bestez (kotizaziopekoen kasuan 1.485,20 euro; eta sorospenekoenean, 495,80 euro). Gainera, batez besteko prestazioa asko murriztu da azken aldian (2014tik 2015era %2,6 jaitsi da; 2009tik 2015era guztira %16,9 gutxitu delarik) eta ezberdintasun erraldoia dago kotizaziopeko prestazio eta sorospenekoen arteko kopuruetan: batez besteko kotizaziopeko prestazioa 2015eko azaroan sorospeneko bano hiru bider altuagoa izan da (eta ezberdintasun hori are handiagoa izan da aurreko urteetan).

HARTZAILE BAKOITZEKO GASTUA PRESTAZIO EZBERDINETAN
HEGO EUSKAL HERRIAN, AZAROAN

euro	Prestazio guztiak	Kotizaziopeko prestazioak	Sorospeneko prestazioak
2015	1.035,35	1.485,20	495,80
2014	1.062,65	1.514,62	489,00
2009	1.245,76	1.630,48	497,45

Iturria: Sepe


Honatx azpimarragarriena:

- Kontratazioa hazi egin da, baina kontratu ia guztiak aldi-baterakoak dira.
- Langabezia murriztu egin da, baina oraindik 193.000 langabe bano gehiago daude HEHn.
- Gero eta langabe gutxiagok jasotzen dute prestazioren bat: %41ek soilik une honetan.
- Langabe bakoitzeko batez besteko gastua gutxituz doa (hileko 425 euro).
- Prestazioen hartzaileko batez besteko gastua murrizten doa (hileko 1.035 euro).

Hego Euskal Herria Europar Batasunean

Gure herrialdean dagoen lan eta gizarte egoera Europar Batasunekoarekin alderatzean, argi azaltzen da langabezia eta prekarietate maila altuenetakoak dituen lurraldea dugula HEH: %13,7ko langabezia tasa dugun bitartean, Eurozonak %10,4koa du eta 28 estatuen EBk %9,1; soilik lau lurraldek dute gurea baino langabezia tasa altuagoa Batasun guztian: Txipre (%15), Kroazia (%15,6), Estatu espainiarra (%21,3) eta Grezia (%24,2) dira. Ordea, Islandia da langabezia baxuena duen estatua (%3,6), 2008an finantza krisi gogorra pairatu bai, baina presio neoliberalen aurka banka sistema erreskatatu ez zuena. Alemania (%4,5) eta Norvegia (%4,6) daude ondoren.


LANGABEZIA TASA, 28 EB 2015EKO 3.HIRUHILABETEA



Iturria: INE, Eurostat

Gazteen langabeziari dagokionez, HEHko datuek (%39,2) 28 kideko EBren datuen (%19,9) bikoitza izaten jarraitzen dute eta Eurozonakoetatik (%21,9) oso urruti jarraitzen dute. Kasu honetan, hiru lurralde daude gurea baino okerrago: Kroazia (%41), Estatu espainiarra (%46,6) eta Grezia (%48,8). Arrazoi horregatik eta Europako 24 estatuk gazteen langabezia %25etik behera dutela kontuan izanda (are gehiago, 21 estatuk %20koa baino baxuagoa dute), Batasuneko maila eta joeratik baztertuta gaude Hego Euskal Herrian. Hala eta guztiz ere, Nafarroako datuak EAEkoak baino 5 puntu hobekoak direla azpimarratu beharra dago. Honetan ere Islandia (%5,3ko gazte langabeziarekin), Alemania (%8,3) eta Norvegia (%10,2) dira egoera hobereena dutenak.


GAZTEEN LANGABEZIA TASA, 28 EB 2015EKO 3.HIRUHILABETEA



Iturria: INE, Eurostat

Epe luzeko langabezia ikuskatzean ere Europako maila kaskarrenetakoa dugu: langabezia egoeran dauden 100 pertsonatik ia 57k lan bila urtebete baino gehiago daramate HEHan lortu ezinik. Grezia, Kroazia eta Eslovenia dira gaizkien daudenak epe luzeko langabezian, %70eko mailaren baitan kokatzen baitira. Beste muturrean Islandia –langabezian daudenen seirena (%16,3) duelarik urtebete baino gehiago lanik aurkitu gabe– eta herrialde nordikoak daude.

EPE LUZEKO LANGABEZIA, LANGABEZIA GUZTIAREKIKO, 28 EB 2015EKO 3.HIRUHILABETEA




Iturria: INE, Eurostat

Behin-behinekotasunari so eginez gero, HEHn soldatapeko langileen laurdenak baino gehiagok (%25,1) epe baterako lan kontratua du, Europako hirugarren maila altuena izanik, Estatu espainiarra (%26,2) eta Poloniaren (%27,9) atzetik. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago Nafarroa dela Europa mailan

tenporalitate altuena duena, langileen %28k behin-behineko kontratua baitu. Beraz, HEHn lau langiletik batek aldi baterako kontratua du, Europar Batasuneko batez bestekoa zazpitik batekoa (%14,8) eta Eurozonakoa seitik batekoa (%16,3) den bitartean. Tenporalitate maila baxuena duten estatuak Europako Ekialdekoak dira.

TENPORALITATE TASA, 28 EB 2015EKO 3.HIRUHILABETEA




Iturria: INE, Eurostat

Europarekiko eta gizon-emakumeen arteko alderaketa


HEHren eta Europaren arteko konparaketa honetan gizon eta emakumeen ezberdintasunak barneratzean, emakumeek prekaritate maila altuagoa pairatzen dute eta gizonek baino egoera hobea dute bakar-bakarrik gazteen langabeziari eta epe luzeko langabeziari dagokienez, ondorengo bost grafikoek islatzen duten bezala. Gainera, bost neurgailuetatik lautan Hego Euskal Herrian dagoen egoera Europakoa baino txarragoa da, eta soilik partzialitateari dagokionez dugu egoera hobea.

LANGABEZIA TASA 2015EKO 3.HIRUHILABETEA




Iturria: INE, Eurostat

Datuek adierazten dutenez, lanaldiaren luzeera edota partzialitatea da gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun nabariena dagoen neurgailua, bai HEHan eta baita Europan ere: jardunaldi partzialean lan egiten duten emakumeen portzentaia gizonena baino 4,1 aldiz handiagoa da gure herrialdean, eta 28 estatuen EBn erlazio hau 3,6koa da. Behin-behinekotasunak ere emakumeak kolpatzen ditu gehien, gizonena baino %23ko tasa altuagoa baitute (Europan %7 altuagoa delarik). Emakumeen langabezia tasa gizonenena baino %6 altuagoa da HEHn, eta %4,5 handiagoa EBn.



Iturria: INE, Eurostat


Bestalde, epe luzeko langabezia tasa eta gazteen langabezia tasa altuagoak dira gizonen artean: gizonen epe luzeko langabezia emakumeena baino %21 altuagoa da HEHn eta %4 EBn. Gazteen langabezian ezberdintasunak %11 eta %3koak dira, hurrenez hurren.




Iturria: INE, Eurostat

Orobat, deigarria da Europan gizon eta emakumeen datuen antzekotasuna, langabezia mailan, gazteen langabezian, epe luzeko langabezian eta behin-behinekotasunean dagoen berdintasun mailaren adierazgarri. Alabaina, berdintasun maila hori ez da ematen partzialitateari dagokionez, gehienbat emakumeak kolpatzen baititu, eta era larrian.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA
2015EKO 3.HIRUHILABETEA



PARTZIALITATE TASA
2015EKO 3.HIRUHILABETEA



Iturria: INE, Eurostat

Gutxieneko soldata Hego Euskal Herrian eta Europan


Europako estatu gehienek legez ezarrita dute langile eta enpresarien arteko lan harremanak arautzen dituen soldata minimo bat, eta bere kopuru eta eraginaren inguruko eztabaidak badaude ere, adostasun orokorra dago langileen bizi baldintza duinak bermatzen dituen soldata minimoa ezartzearen inguruan.

Europar Batasuneko estatuak soldata minimo ezberdinak dituzte ezarrita, zenbaki absolututan 1:10eko ezberdintasun mailara iristen direnak (Bulgariako –hilean 194,29 euro– eta Luxenburgokoaren –1.922,96 euro hilean– arteko ezberdintasuna). Eurostatek soldata minimo horiek argitaratzen ditu urtean bi alditan eta, ohiko denez, kopuru gordinetan azaltzen ditu.

Soldatak urtean 12 alditan baino gehiagotan ordaintzen diren kasuetan (Grezian, Portugalen eta Estatu espainiarrean bezala) datuak egokitu egiten dira hori kontuan izateko. 2015eko urtarrilaren 1ean Austriak, Ziprek, Danimarkak, Finlandiak, Italiak, Suediak, Islandiak, Norvegiak eta Suitzak ez zuten estatu mailako soldata minimorik (sektore zehatzetarako ezartzen da hitzarmen kolektiboen bidez, Zipren izan ezik, han lanbide zehatzetarako ezartzen baita).

Europako datuak urriaren 9an eguneraturik eta Portugaleko eta Estatu espainiarreko 2016rako igoyerak barneraturik (%5 eta %1, hurrenez hurren), ondorengo grafikoa lortzen da. Bertan, hilabeteko soldata minimoa –zutabeetan, zenbakia goitik behera adierazita– eta gutxieneko kopuru horrek hilabeteko BPG per capitarekiko ehunekoa islatzen ditu Europar Batasuneko estatuetan.

SOLDATA MINIMOA GUZTIRA ETA BPG PER CAPITAREKIKO EHUNEKOTAN



Iturria: Eurostat, INE, Gobierno de España, Governo de Portugal

(erabilgarri dagoen informazio berrienarekin egina: 2015eko hirugarren hiruhileko BPG eta 2014ko populazioarekin; HEH, aldiz, 2014ko datuekin)


Grafikoan ikusten denez, Luxenburgo da Europar Batasunean gutxieneko soldata altuena duen estatu (1.922,96 euro hilabeteko) eta BPG per capitarekiko soldata minimo baxuena duena ere (%24,8koa). Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata Estatu espainiarretik inposatzen da, baina bere garrantzia batez beste sortzen den aberastasunarekiko –BPG per capitarekiko– baxuagoa da: 764,40 euro hileko soldata minimoa 12 ordainalditan gure BPG per capitaren %31,3 besterik ez da, Estatu espainiarrean %40 den bitartean.

Gogorazi beharra dago pobrezia erlatiboa, neurgailu ofizialen arabera, hilabeteko 811,90 eurotan ezarri zela 2014an EAEn eta 850,09 eurotan Nafarroan 2013an, 12 ordainalditan. Horregatik, kopuru horietatik behera dagoen edozein soldata minimok eragotziko die kobratzen duten pertsonen dauden pobrezia egoeratik ihes egiten. Hori dena pobrezia erlatiboaren definizioak eta neurketak dituen berezko gabeziak aipatu eta baloratu gabe.

Beste kasu deigarri batzuk Bulgaria eta Grezia izan daitezke. Lehenak Europako soldata minimo baxuena du, Luxenburgokoa baino hamar aldiz baxuagoa; hala eta guztiz ere, BPG per capitarekiko gutxieneko soldataren garrantzia %35,2koa da Bulgarian, Luxenburgon baino hamar ehuneko altuago. Greziaren kasua are deigarriagoa da: BPG per capitarekiko Europako laugarren altuena baita da, bere gutxieneko soldata –%47,8koa, hain zuzen– kopuru absolutuan hamaikagarren postuan baitago.

Soldata minimo altuagoen kontra daudenek argudiatzen dutenez, gutxieneko soldata altuago batek langabezia maila altuagoa eragingo luke. Hurrengo grafikoak langabezia tasa eta hilabeteko gutxiengo soldata alderatzen ditu eta, ikusten denez, ez dago harreman argirik bien artean. Are gehiago, langabezia tasa altuenak dituzten estatu biak –Grezia eta Estatu espainiarra, %24,1 eta %21,3arekin, hurrenez hurren– ez dira soldata minimo altuenak dituztenak Europar Batasunean, eta burutik urrun kokatzen dira.

LANGABEZIA MAILA ETA GUTXIENEO SOLDATA



Iturria: Eurostat, INE, Gobierno de España, Governo de Portugal

Horregatik, ez dago erlazio zehatzik soldata minimo absolutu eta erlatiboaren artean, gutxieneko soldata eta langabezia tasaren artean erlazioz ere ez dagoen bezala. Argi eta garbi azaltzen da, beraz, gutxieneko soldata negoziatioak eta borondateak ezartzen duela gehienbat, eta ez hainbeste arrazoi ustez zientifikoak.

Lan harremanak duintzen dituen gutxieneko soldata berri baterantz

Gutxieneko soldata, lan harremanak beheko aldetik mugatzen dituen lege ezarritako kopurua, betidanik izan da eztabaidatua arrazoi ezberdinengatik. Baina gehienetan ez da gaia sakonean aztertu eta eztabaidatzen, ez delako kontuan hartzen lege ezarpen horrek sortzen duen (in-)justizia. Gutxiengo soldataren beharra baloratu gabe etikaren eta justiziaren aldetik, beste alor batzuk aztertu daitezke.

Horrela, adibidez, Europar Batasuneko BPG per capitarekiko batez besteko gutxieneko soldata ez haztatua hartuz gero (%38,71) eta HEHn aplikatu, hileko 946,15 euroko kopurua lortzen da (11.353,80 euro urtean; 810,99 euro 14 ordainalditan). Kopuru hori izango bagenu HEHn, 28 kideetako EBn hamahirugarren tokian kokatuko ginatke (Irlanda eta Estatu espainiarraren artean hain zuzen): orain hamazortzigarrenean gaude.

Beste konparaketa bat aurkeztekotan, hileko 1.200 euroko gutxiengo soldata bat 12 ordainalditan (14.400 euro urtean; 1.028,57 euro 14 ordainalditan) BPG per capitaren %49,1 da Hego Euskal Herrian. Horrelako soldata batekin, Europa buruko laugarren postuan kokatuko ginatke Grezia (%47,8) eta Esloveniaren (%49,2) artean. Gaur egun dagoena baino justuagoa da 1.200 euroko gutxiengo soldata bat HEHn, bizi maila eta kalitate altuagoa baitago Grezian, Polonian edota Estatu espainiarrean baino, besteak beste (eta, aldiz, estatu horietan gutxiengo soldata BPG per capitarekiko altuagoa da HEHn baino; eta baxuagoa izango litzateke aipaturiko 1.200 euroko minimoarekin).

Guzti honengatik, ezin zaie inposatu Hego Euskal Herriko langileei duintasunaren prezioa Estatu espainiarretik, eta are gutxiago estatu horrek gure herrialdearen izaera eta herritarren egoera, beharrak eta nahiak sistematikoki baztertu egiten dituela kontuan izanda.